



Bezeroarekiko harremanak

Gure enpresarentzar, bezeroarekiko harremana oso garrantzitsua da, haiek izango baitira gure proiektua bultzatuko dutenak. Aguretxeren balore nagusia errespetua denez, haienganako errespetu osoa izango dugu uneoro. Lehen esan bezala, zerbitzua aurrez aurre kontratatuko da, gure egoitzan, gure enpresaren humanizazioa eta portaera hona erakusteko.

Aurreko puntuan aipatu moduan, web orrialde bat izango dugu, non gure bezeroek gurekin harremanetan jartzeko bideak topatuko dituzten. Bezeroak zalantzaren bat izatekotan, gure esku dagoen guztia egingo dugu hura laguntzeko. Zalantzak aurrez aurre argitu nahi baldin badituzte, gure egoitzara hurbildu besterik ez dute behar, nahi adina informazio jasotzeko.

Hortaz gain, lehen aipatutako publizitatea erabiliko dugu bezeroa gugana hurbiltzeko.